

Sortzez Garbia

*Gustiz Altsuak bere loradi bikañenetik
bidaldu euskun Maria'k,
lenengotatik artuten ditu ixadiaren
aintza ta omen audiak.*

*Goi-baratzeko lora ederá zaran Maria
orban bagarik sortua,
entzun egixu seme aul onek egiten dautsun
eskari samur-gozua.*

*Uregorízko lañoz batuta eder zakustaz;
Euzkia zure gañeko;
ule matasak dizkiz dagitsu ixarén argiz;
ilargi dozu oinpeko.*

*Zure gorputza, laúosa antzera, lerden guria;
zure aboa, edurá;
zure baúea, egutaizea; adatsa, baúiz,
bela lez baltza, kiskurá.*

*Zorun-baratzan guraso zaúak galdu zituan
su-labetako sugeak,
zeru ta luúen, Ama maitea, miazten dautsuz
amoúu bixiz oinpeak.*

*Gogo-etsaya oñaz zapaldu zendun unean
malkoak joan zirean;
ordutik ona gixadi-biotz gustiak dagoz
pozez ez titan luúean.*

*Gixasemien negar zotiña gozofu zendun
 Maria Neskutz garbia,
 ludiak beti goratu zaizan egingo dot nik
 alegin aundi-aundia.*

*Egun-sentian zoragaría agertuten da
 eguzki argi-goría,
 baña Zu askoz ederago ta maiteagoa
 zakustaz Miren garbia.*

*Abar artean surmur dagian aize bizkorák
 omena ta aintza damotsu,
 ta lorai mosu egiñaz doyan uraren otsak
 gora ta gora diñotsu.*

*Gabea lorak, iñontz tantaz lez, bizkortu ezik
 zure maitasun goitarák,
 nire bixitz au itoko leuke, ¡Sortzez garbia!
 atsekabien indarák.*

*Zugandik uŕin, itxas nastuan noz ondatuko
 laŕi dabilan ontzia,
 bai-dala, egiz, Ama laztana, osoro gexo
 ta eŕukaŕi aundia.*

*Ama-altzoan gozaro lotan dagoan auŕa
 bildur barik bixi dan lez,
 ni bere Zugaz ekaitz gogoŕak adituáren
 bakez nago gau-egunez.*

*Zure magalpe gozo-leunean, Ama laztana,
 eztago ezen bildurík,
 Beraz, bixitzan, Zugandik iñoz aldendù barik
 bixi gura dot gaurgandik.*

SANTI. K. O.